2019ko azaroan erregistratutako langabezia

2019ko azaroan zehar LANBIDEko bulegoetan %1,36 langabe gutxiago erregistratu dira, langabe kopurua 113.777 da. Aurreko urteko eboluzioarekin alderatuz, hilabete honetakoa aurreko urtetakoa baina hobea izan da. Hilabete honetako eboluzioa krisi aurreko garaikoaren antzekoa izan da.



Urte arteko eboluzioari dagokionez, 7.722 pertsonetan murrizten da langabezia. Berriz piztu da jaitsieraren erritmoa, aurreko hilabetean moteldu ostean.



- **SEXUA**

Azken hilabetean langabezia emakumezkoen artean gehiago murriztu da (% 1,89) gizonezkoen artean baino (% 0,66). Urte arteko saldoari dagokionez, gizonezkoen langabezia % 5,97 murriztu da eta emakumezkoena % 6,65. Gaur egun langabeen % 56,6 emakumeak dira. Krisia hasi zenean, aldiz, langabe kopurua berdintsua zen bi sexuetan, gizonezkoen artean langabezia orain baino handiagoa zen eta. Gizonezkoen artean krisiaren eragina handiago izan zen, baina talde hau errekuperazio ahalmen handiago erakusten ari da.

- **ADINA**

Azken hilabete honetan langabezia adin tarte guztietan murriztu da. Murrizketa handiena 25-34 urte artekoen tartean izan da (-% 2,48). Urte arteko saldoan, jaitsiera handiena 24 urte azpikoen tartean izan da (-% 10,97). 54 urtez gorakoen artean langabezia motel murrizten da, lan munduratzearen zailtasunak agerian utziz biztanleria helduaren artean. Ekonomia, egun, hobetzen ari bada ere, egiturazko langabezia handia utziko du krisiak langabe zaharrenen artean.

- **JARDUERA EKONOMIKOA**

Azaroan zehar, sektore guztietan murriztu da; murrizketa handiena industrian izan da (% 2,28). Aurretik enplegurik izan ez dutenen artean % 1,19 murriztu da. Balore erlatiboetan eta aurreko urteko datuarekin alderatuz eraikuntza sektoreko murrizketa, % 10,16ko jaitsiera, eta lehen sektorekoa (% 11,08ko jaitsiera) nabarmentzen dira.

Datuak zehatzago aztertuta, langabezia murrizketa handienak izan dituzten jarduerak hauek izan dira: hezkuntza (-186), txikizkako merkataritza (-163), elikagaien industria (-79), janari eta edarien zerbitzuak (-77) eta egoitza gabeko gizarte zerbitzuen jarduerak (-76). Langabezia hazkunde handiena erregistratu dutenak hauek izan dira: egoitza zerbitzuak (+74) eta finantza zerbitzuak (+39).

- **LANGABEZIAREN IRAUPENA**

Hilabete honetan, epe laburreko langabezia 748 pertsonatan murriztu da eta epe luzekoa 816 pertsonatan. Urte osoari begiratuz gero, ikusten da jaitsiera handiagoa izan dela epe luzeko langabeen artean (% 11,12) epe laburrekoen artean baino (% 1,26). Ekonomiaren susperraldia, bada, aukerak eskaintzen ari da langabe kronifikatuenei.

- **LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA**

Azaroan langabezia hiru lurraldeetan murriztu da: Araban %2,01, Gipuzkoan % 0,83 eta Bizkaian % 1,41.

Urte arteko saldoari erreparatuz Bizkaiak erregistratu du eboluzio onena % 6,41ko jaitsierarekin; Gipuzkoak jarraitzen dio % 6,32ko jaitsierarekin eta azkenik Araban % 6,23 murriztu da.

Hiriburuak aztertuta, Bilbon azken hilean 176 pertsonatan murriztu da langabezia, Gasteizen 297 pertsonatan eta Donostian 50 pertsonatan. Langabezia gehien murriztu diren eskualdeak Ezker Eskualdea (-448), Durangaldea (-73) eta Gobela (697) izan dira.

Hil honetan erregistratutako langabezia handiena duten udalerriak honako hauek izan dira; Oion (% 19,80), Lantziego (% 18,24), Sestao (% 17,55), Balmaseda (% 16,13) eta Bastida (% 15,35).

- **LANGABEZIA-PRESTAZIOA**

2019ko azaroan 39.058 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 139 langabe gutxiagok. Langabeen % 34,3k du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea. 22.715 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen % 20 dira horiek. 16.343 langabek (% 14,4), berriz, langabeziagatiko prestazioa jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (% 37,5), Araban eta Bizkaian % 33,2koa da.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabeziagatiko estaldura-tasa 0.34 puntu hazi da; aurreko urtearekin alderatuz 4.22 hazi da.

• IKASKETA MAILA

Langabeen % 61,2k (69.595 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 337 langabetu gutxiago erregistratu dira. Talde horretan % 7,32 jaitsi da langabezia azken urtean. Azken urtean gehien murriztu den taldea izan da.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 8,9 dira. Talde horretan % 0,73 murriztu da langabezia azken hilean, eta azken urtean % 5,20.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 19.997 dira, hau da, langabeen % 17,6. Talde hau irailean zehar % 2,51 murriztu da, eta azken urtean % 4,85

Azkenik, langabeen % 12,4k (14.094 lagun), egin ditu unibertsitateko ikasketak. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean % 4,33 murriztu da langabezia azken hilabetean eta % 4,40 murriztu azken urtean. Hezkuntza sektorearen berraktibatzeak azaltzen du talde honetan izan den hil arteko bilakaera positiboa, talde guztietan hoberena.

• JATORRIA

Langabeen % 16,1 (18.344 lagun), atzerritarrak dira. Aurreko hilarekin alderatuta, ikusten da langabezia % 0,49 hazi dela atzerritarren artean, eta % 1,70 murriztu bertakoen artean.

Langabe atzerritarren % 34,9a Afrika iparraldekoak dira, % 21,8a Latinoamerikatik datoz, % 19,2 Europako Esparru Ekonomikotik, % 14,5a Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 5,8, azkenik, Asiatik. Azaroan Latinoamerikatik eta Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritako pertsonen artean hazi da gehien langabezia (+53 eta +43, hurrenez hurren).

• KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan 20.525 langabe gehiago daude aurreko hilean baino (% 0,65eko hazkundea). Guztira 3.198.184 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, % 1,36 murriztu da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabezia hazi egin da: Nafarroan % 1,75, Errioxan % 1,24, Kantabrian % 2,29 eta Gaztela eta Leonen % 1,03. Katalunian % 0,72 hazi da eta Madrilen % 0,83 murriztu da. EAEko bilakaera estatuko autonomia erkidego guztietako onena izan da.

Lan-eskatzaile langabeak 2019ko azaroan

	aza-2019	urr-2019	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	**49.397**	**49.724**	**-327**	**-0,66**
EMAKUMEZKOAK	**64.380**	**65.617**	**-1.237**	**-1,89**
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	**8.357**	**8.411**	**-54**	**-0,64**
GIZONEZKOAK	**4.285**	**4.274**	**11**	**0,26**
EMAKUMEZKOAK	**4.072**	**4.137**	**12**	**-1,57**
25-44 URTE:				
GUZTIRA	**47.416**	**48.367**	**-951**	**-1,97**
GIZONEZKOAK	**19.884**	**20.108**	**-224**	**-1,11**
EMAKUMEZKOAK	**27.532**	**28.259**	**-727**	**-2,57**
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	**58.004**	**58.563**	**-559**	**-0,95**
GIZONEZKOAK	**25.228**	**25.342**	**-114**	**-0,45**
EMAKUMEZKOAK	**32.776**	**33.221**	**-445**	**-1,34**
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA				
INDUSTRIA	**2.521**	**2.547**	**-26**	**-1,02**
ERAIKUNTZA	**13.379**	**13.691**	**-312**	**-2,28**
ZERBITZUAK	**7.908**	**7.980**	**-72**	**-0,90**
AURREKO ENPLEGURIK GABE	**75.904**	**76.889**	**-985**	**-1,28**
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	**18.655**	**19.037**	**-382**	**-2,01**
BIZKAIA	**65.108**	**66.039**	**-931**	**-1,41**
GIPUZKOA	**30.014**	**30.265**	**-251**	**-0,83**
EAE	**113.777**	**115.341**	**-1.564**	**-1,36**

	Langa-betuak	Erregistratuta-ko langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	3.988	10,8%	-14	-0,35	-135	-3,27
Oarsoaldea	3.383	9,4%	-50	-1,46	-280	-7,64
Donostia-S.Seb.	7.291	8,3%	-50	-0,68	-613	-7,76
Donost.Mendebaldea	2.864	8,0%	-50	-1,72	-196	-6,41
Tolosaldea	1.943	8,4%	-28	-1,42	-174	-8,22
Urola Erdia	1.207	8,1%	1	0,08	-92	-7,08
Goiherri	1.569	7,5%	-34	-2,12	-153	-8,89
Deba Garaia	2.370	7,9%	-22	-0,92	-206	-8,00
Deba Behera	2.736	10,4%	-21	-0,76	-70	-2,49
Urola Garaia	1.096	9,2%	2	0,18	1	0,09
Urola Kosta	1.567	7,1%	15	0,97	-106	-6,34
GIPUZKOA	30.014	8,7%	-251	-0,83	-2.024	-6,32
Vitoria-Gasteiz	14.477	11,8%	-297	-2,01	-1.046	-6,74
Aialako Ibarra	2.210	11,7%	-41	-1,82	-114	-4,91
Arabar Errioxa	682	12,9%	-34	-4,75	-45	-6,19
Arabako lautada	656	8,9%	-6	-0,91	-18	-2,67
Gorbeia inguruak	275	5,9%	-3	-1,08	-2	-0,72
Arabako Ibarrak	378	7,8%	2	0,53	-28	-6,90
Arabako Mendialdea	100	6,7%	-1	-0,99	-14	-12,28
ARABA	18.655	11,4%	-382	-2,01	-1.240	-6,23
Gobela	4.727	9,1%	-69	-1,44	-177	-3,61
Txorierri	2.082	9,1%	-38	-1,79	-231	-9,99
Uribealdea	2.973	9,1%	-41	-1,36	-77	-2,52
Durangaldea	3.181	8,5%	-73	-2,24	-113	-3,43
Busturialdea	2.152	9,9%	1	0,05	-66	-2,98
Lea-Artibai	968	8,1%	16	1,68	-108	-10,04
Enkarterriak	2.078	13,3%	-36	-1,70	-144	-6,48
Arratia-Zornotza	1.440	8,4%	-26	-1,77	-43	-2,90
Arratia-Nerbioi	1.298	10,0%	15	1,17	-87	-6,28
Bilbo	22.495	13,5%	-176	-0,78	-1.820	-7,49
Ezkerraldea	17.152	13,7%	-448	-2,55	-1.206	-6,57
Ibaizabal	4.437	11,1%	-59	-1,31	-356	-7,43
BIZKAIA	65.108	11,7%	-931	-1,41	-4.458	-6,41
EAE	**113.777**	**10,7%**	**-1.565**	**-1,36**	**-7.719**	**-6,35**

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.